



I Urtarrila 2019 I

Euskadi, Errioxa eta Nafarroako nekazaritzako elikagaien sektoreari zuzenduta, datorren urtarrilaren 31n ”**Enpresen arteko sinergiak sustatzen**” tailerra ospatuko da Calahorran.

Jardunaldi hau

ORHI proiektu

europarraren

baitan kokatzen da, Interreg Poctefa deialdian, eta bere helburua nekazaritzako elikagaien sektorean ekonomia zirkularrak eskaintzen dituen konponbide berritzaileak sustatzea da, plastikozko eta materia organikozko baliabideei zuzendutakoak, hain zuzen ere.

Jardunaldi honek bertan parte hartzen duten **enpresek euren arteko sinergia posibleak**

**identifikatzea du**

helburu, **bi alderdientzako**

**onuragarriak izango daitezkeen hitzarmenak sustatuz**

. Hitzarmen posibleen eredu batzuk hauek izan daitezke:

**1. Enpresa batek bere azpiproduktuak eskaintzen ditu eta beste enpresa batek input gisa hartzen ditu**

**2. Baliabideak partekatzea**(biltegi, garraio edota profesional espezializatu bat partekatzea...)

**3. Elkarlan hitzarmenen bitartez**, enpresa bateko teknologiak beste enpresa batek duen beharrari erantzuna ematea.

Tailer honetan Lea-Artibaiko nekazaritzako elikagaien sektoreko enpresek euren **harreman**

**sarea zabaltzeko**

aukera izango dute. Hala nola,

**Euskadi, Errioxa eta Nafarroako sektore honetako balio kateko**

enpresa ezberdinekin, ikuspegiak eta esperientziak elkarbanatu, eta beraien enpresa-jarduerentzako onuragarriak izango diren hitzarmen posibleak identifikatzeko aukera izango dute.

ORHI Eskualde Garapenerako Europako Funtsak Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra (POCTEFA 2014-2020) Programaren bitartez %65ean finantzaturako proiektu europarra da eta 2018ko urtarriletik 2020ko abendura arteko iraupena izango du.